



Errotazarra (-a) *etxebizitza*

Aldacrak: Biritxinaga
Ahozkoa: Errótasar



43° 10' 46"

2° 35' 56"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería rústica titulada Errotazarra... situada en la barriada de Eitua, jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con su horno ochenta y nueve estados cuadrados superficiales de planta solar, la que es de una vivienda, y se compone de piso bajo y alto, con sus correspondientes pisos, cuartos, divisiones y habitaciones..."
DJE 2/67 or. (1866)

Egun guztiz berritutako bizitza biko baserri honen gaineko lehen aipu dokumentala Bizkaiko su-erroldean aurkitzen dugu *Errotazarra* (1796). Hortik aurrera, jasan dituen aldaketa bakarrak *Rotazarra* (1866, DJE, 2/ 33. or.) eta *Errotazar* (1967, BUA, CE) izan dira. Ahozko transmisioan, *Errótasar* aurkitzen dugu. *Biritxinaga* moduan ezagutzen da baserria, familiaren abizenaren ondorioz.

Errota izan zena, XVIII. mendean, hurrengo gizaldian baserri bihurtu zuten eta oraintsu guztiz aldatu eta berriztatu dute, gaur egun-

go etxeen premietara egokituz. Hasierako bi bolumenak kontserbatzen ditu, aldatsean egin baitzuten, baina baserri tradizionalen antzik kasik ez dute, batez ere lehenengo egin zenak, ez materialetan, ezta fatxaden antolamenduan ere. Berriagoan, aldiz, alboko fatxada batean hurbildu ziren modelo ezagunagoetara, harria erabili zutelako beheko solairuan eta adreilua, frontoian. Besteetan balkoien presentzia eta baoen desberdintasuna da nabarmena.

toponimia

Izen arrunta ulertzeko aparteko azalpenik behar ez duena. Errota hitza latinetik hartu zuen euskarak. Latinez rota zen eta gartzelaniak ere hartu zuen eta rueda bihurtu eta eraikuntza baino biraka dagoen harria zen. Antzina Bizkaian errota esateko bolu erabiltzen zen eta horregatik sarritan ageri da toponimian Bolibar, esaterako Errotaibar da, baina aspaldian desagertu zen hitz hori eguneroko euskaratik eta toponimoetan baino ez da gorde.